

Liburuak

KRITIKA

Lehen bilduma 82-84.

Mikel Antza.

Susa, 1985. 64 + 62 orrialde. 5,70 euro.



Hemeroteka

Gorka Bereziartua

Antzaren bidea

EZTABAIDA IZAN DUT nire buruarekin, zilegi ote den liburu iruzkin baten hasieran “literaturan dena esana dago” topikotzarra jartzea. Mikel Antzaren *Lehen bilduma 82-84* liburuko *Amodiozko istorio bat* ipuina irakurri bitartean etorri zitzaidan topikoa burura. Izan ere, *queer* mugimendua gu guztion ahotan den honetan, gutxienez bitxia da atzera begiratu, eta ikustea 1983rako, zuri gainean beltz, narratzaile euskaldun batek idatzia zuela katu transexual batekin maitemindu zeneko istorioa. Ez dugu ezer asmatuko.

Liburua 1985ean argitaratu zen, aski forma bitxian: bi azal ditu, eta binilozko disko bat bezala, A eta B aldeak. Alde bateko ipuinak bukatu eta bestekoak irakurri nahi izanez gero buelta eman behar diozu liburuari. Kanpoko itxuran behintzat geroz eta liburu estandarragoak publikatzen diren honetan, –uste dut argitaletxeek sailen batasunari lehentasuna eman diotela, obra indibidualaren kaltetan– artisau lanaren tankera hartzen du Antzaren honek.

Baina itzul gaitezen mamira –testu hau bai aldrebesa ari dela ateratzen, *mon dieu*–.

Idatzi ziren urteez aparte elkarren artean lotura handirik ez duten ipuinak dira, eta liburu bakarrean bilduta, osatzen dute, musikan single bilduma bat izango litzatekeenaren antzeko zer-bait. A aldeko lehen bi ipuinek, alegoriak baliatzen dituzte, idatzi ziren garaiaz jarduteko: adibidez, *Suzko gezi bat bezala* ipuin eza-gunean azaltzen den editoreak poesia mespretxatzen du, garaiko euskal editore batek egin zuen maneran.

Matrioshka tankerakoak dira liburuko beste hiru: ipuinen barruan ipuinak gordetzen dituzte. Horietan borobilena, nire irudiko, *Irrati lokutore baten heriotza* da, bere sinplean K.O. azkarra lortzen duelako, irratiko eskaleta baten tankerara osatutako narrazioarekin. *Xabi “Metal” Agirreren istorio labur eta triste*a-k punk giroko klixetiko batzuk erreproduzitzen ditu –sexua, droga, rock-and-rolla– eta esango nuke urteek ez diotela onik egin.

Denetan estilo lauena, molde narratibo sinpleena erabiltzen duen *Itzulerarik gabeko gunean* da, ene ustez, gutxien higatu dena. Eta paradoxikoa ere bada, zahartzaroaz diharduen ipuina izanik. Liburuko istorioen artean azkena izan zen, 1984ko abuztuko data dauka: Antzak, narratiban, sasirik gabeko bidea dauka aurretik momentu hartan. 1987an publikatu zuen *Odolaren usaina*-k konfirmatzen du, lan borobilagoa izan baitzen, Xabier Mendigurenek aldizkari honetan egin zion kritikan irakur daitekeenez.

Ez dakit orain, kartzelan, Mikel Antzak idazten jarraitzen ote duen. Eta jakin nahi nuke. |

Bolognako prozesuaren inguruan gogoetan

Unibertsitateetan azken urteetan eztabaidagai da Bolognako prozesua. 1999ko ekainean Europako 29 herrialdeetako ministroek sinatutako Bolognako Adierazpenetik abiatuta, 2010era bitarteko epean Goi Mailako Hezkuntzaren Europar Esparrura egokitu beharko dute herrialde horietako unibertsitateek. Dena dela, aipatu adierazpenak proposatzen duen unibertsitate eredu eztabaida iturri ere izan da, ez baitu mundu

akademikoko sektore guztien oniritzia. Eztabaida horri heldu diote *Jakin* aldizkariaren 168. zenbakian Tontxu Campos, Patxi Juaristi, Juan Ignacio Perez Iglesias, Nekane Balluerka eta Jose Miguel Campillok beraien artikuluekin. Gainera, iritzi bilketa egin dute unibertsitate munduko eragileen artean. |



Jakin 168.
Batzuen artean.
147 orrialde.
10,50 euro.

Arantzazu berrira, Mariano Errastirekin

Mariano Errastik euskaraz eta gaztelaniaz argitaratu du *Arantzazu berrira bidean gora* liburua. Paulo Agirrebaltzategi arduratu da euskarazko itzulpena egiteaz. Liburua, narrazioa eta saiakeraren artean dago, Unamuno eta enparauiek egindako “bidaia apunteen” generokoa da, egilearen esanetan. Bi partetan banatu dago: aurrenekoan, Arantzazura igo bitartean ikusitakoez mintzo da Errasti; bigarrenean, bidaia historian zehar egin du, Arantzazuk azken 50 urteetan izan dituen aldaketetan barrena. Euskal literaturak Arantzazurekin izan duen harremana islatzen da liburuan,

Gabriel Aresti, Bernardo Atxaga, edota Joxe Azurmendiren aipuak tarteko. |



Arantzazu berrira bidean gora.
Mariano Errasti.
Arantzazu Edizio
Frantziskotarrak.
164 orrialde / 14 euro.